

Iritzia

Txillardegia,
batuaren aita Baionan

Jean-Louis DAVANT / Idazlea

Txillardegia joan zaigu beraz, eta harekin gure historiako zati on bat, mende erdia gaintzen duena. Hegoaldean asko aipatzen da, hegoaldekoekin soilik, iparralderik ez balego bezala. Alta bada, bere bizitzaz eta obraz, iparraldekoa ere daukagu Txillardegia.

1961eko urtats irian honara ihes etorri zen donostiar lantegi bateko grebaren ondorioz. Hor ingeniaria izanez, langileen alde agertu zen, greba egitea debeku zagolarik. Espainiar poliziaren usaiaiko manerak ezagutzuz, ETAkoa zela aitortzeko arriskua baztertu zuen bi Estatuen arteko muga iraganen.

Ondoko egunetan, Aljeriako soldadu zerbitzutik itzultzean, Hazparneko Saint-Joseph kolegio katolikoan irakasle sartu bainintzen, Txillardegia hor aurkitu nuen, Piarres Charrillon zuzendariak aterpetua. 1858ko udaberritik ezagutzen nuen, Jone Forcada emaztea ere bai, biak Donostian elestatu baintuen. 1961 urte hastean beraz, egun zenbait gurekin egon ondoren, Txillardegia handik lekutu zen familiarekin juntatzeko.

1964ko udazkenean berriz, Hazparneko laborantza eskola sortu berrian, matematiken irakasten hasi zen, eta beraz lehen hiruhilekoan elkarrekin lan egin genuen hor. Zoritzarrez prefetak hemendik haizatu zuen, eta Txillardegia Belgikara joan zen. Urte zenbaiten buruan Lapurdira itzuli zitzaigun familiarekin. 1971an Donibane Lohizungo Aberri Egun istilutsuan parte hartu zuen Monzonekin. Biak berriz desterrura manatu zituen Frantziako gobernuak.

Horien inguruan, Baionako katedralean, historiako bigarren gose greba egin izan zen. Ondorioz gobernuak bere zigorra eztitu zuen, gure bi liderrak denbora batentzat Gersera bidaliz.

Niretzat, Txillardegiren obra nagusia, euskara batuaren sorrerakoa da, iparraldean hasia.

1963ko udazkenetik 1964ko udaraino, euskaltzale batzu hila-betero bildu ginen horren inguruan, Kordelieren karrakako 14an, lehen solairuan, Euskal Idazkaritzak Enbataren aldamenen zeukan gelan, euskara batuari buruzko lehen urratsen finkatzeko. Hor elkarlanean genbiltzan bizpahiru ETAKo, beste hainbat EAJko (haietan Monzon), ni Enbatakoa, Roger Idiart irakaslea, azken bilkuretan beste hiru apez: Andiaza-bal, Hiriart-Urruty eta Lafitte.

Burutzeko, bilkura bat egin zen ber tokian, Baionako Biltzarra, 1964ko abuztuaren 29an eta 30ean, Lafitte gidari, mugaren bi aldeetako euskaltzale gazte andana batekin. Hor onartu ziren euskara batuari buruzko lehen neurriak: grafia eta deklinabidea bereziki. Ondotik Euskaltzaindaria proposatu genizkion, eta honen gehiengoak, 1968ko udan, Arantzazuko Biltzarrean beretu zituen, Koldo Mitxelena izan handiari esker. Gero honek gure ibilbidea markatu zuen, baina beti aitortuz Txillardegiri zor geniona.

Bai, hala da: Txillardegia, euskara batuaren aita dugu, gero Mitxelena gozaita, eguzaita, aita pontekoa izango bazen ere. Euskara batua hazten ari zaigu beti, edozein izaki bizidun bezala. Txillardegia bera ere ez zen lehenbiziko pauso hartan gelditu, eten-gabe aurrera egin zuen, jo aitzina! Badakigu, aita batek ez du haurra

osorik egiten, handiena gero amari dagokio, baina zinezko aita beti hor dauka laguntzaile. Txillardegiri biak zor dizkiogu: lehenbiziki pindarra, hura gabe haurrik ez baita, eta gero bere lanez Euskaltzaindaria ekarri dion hazkurria, nahiz bien arteko ezkontza gutiz hutsegin genuen 1980an. Euskaltzain oso izateko, Patxi Altunarekin lehian gertatu baitzen, horrek baino boz gehiago bildu zuen, baina gehiengo osora heldu gabe, bi boturen faltan. Euskaltzaindarien betoa izan zela erran zen, eta ez da egia. Politikaren aitzakia ere aipatu zen, eta hori ere ez da egia, lekuko nago: Mitxelena eta San Martinek bereziki boza Txillardegiri eman zioten. Egia hau da: apez anitz bazegoela orduan Euskaltzaindian, eta horietarik parte on batek Aita Altunari eman ziola. Ondoko bilkuran beriz hasi behar genuen, eta hor aurkeztu bazen, seguru nago Txillardegik eremanen ziola, aitzinean egonez: besteek amore eman beharko zuten. Gero berantegi zen. Dena dela, ondoko euskaltzainek ez dute horretan ilustrakorik, eta beti saiatu dira Txillardegiri zor diogunaren adieraztera, bereziki 2005ean Donostian egin genion omenaldian, Iker saileko 17. liburua eskainiz. Berari on egin zion, eta guri zelaz ez! Goian bego Txillardegia, euskara batuaren aita.

Envoyez vos courriers par fax
au 05 59 46 02 59
ou bien par e-mail
à l'adresse:
lejourn@lejp.com

Txillardegia, "euskal
intelligentsia"ren
haritik

Andres URRUTIA BADIOLA / Euskaltzainburua

Unibertsitatean harrapatu nau Txillardegiren heriotzaren albisteak, hain zuzen ere, euskarazko ekitaldi batean. Hona nire lehen burutzakia, Txillardegiren gomutan: euskara eta unibertsitate. Bera, beste batzuekin batera, errealitate horren egilea izan zen.

Gero, jakina, bestelako kontuak etorri zaizkit burura, hala nola, behinolako hitzorduak, Ned Thomas galestar soziolinguistarekin, Ondarroan emandako hitzaldi hura edota hamaika ekimen eta lan, euskararen sustatze eta babesletza zereginetan gauzatuak.

Belaunaldiei dagokienez, Txillardegik ekarri zigun guri, joan den mendeko 50- 60 hamarkadetan jaiotakoei, halako haize berria, desberdina, nobela zein saiakera arloetan eta, oro har, gizartearen eta kultur gintzaren esparru anitzetan. Osterantzeko tenore horrek zekarren, ekarri ere, euskararentzat etorkizuna eta biziraupena.

Ingurukoa aintzat hartuta, Txillardegia, beste askoren antzera, oro egilea izan da euskalgintzan, teorikoa nahiz eragilea. Letraz letra irentsi genituen gutariko askok, gose eta ezin ase ari ginenok euskararen munduan, haren lanak eta tituluak, euskara batuaren eraikitze prozesuan.

Euskara batua, euskararen eraberritzea, euskararen normalizazioa... orduko kezka eta ardurak ziren, egun ere euskaldunoi ezin-gona ekartzen digutenak. Txillardegia, bistan da, horiek askatu, erraztu eta aurreratzen ahalegindu da.

Kontuak kontu, Txillardegik gerra osteko euskal intelligentsiaren

berregite prozesuan zeregin esanguratsua bete ditu. Era berean, esker abertzalearen ildoan, ezbaierik gabe, hots handiko lana egin du, ekintzaz nahiz lekukotzaz. Nobela egilea, saio egilea, soziolinguistikaren inguruko aditua, kazetaria eta maisua, irakaslea, aukera guztiak baliatu zituen edonon eta edonoiz, euskararen aldeko ideiak barreiatzeko eta gizarteratzeko.

Luze eta sakon jardun du Txillardegik euskalgintzan eta horren barruan, Euskaltzaindian ere. Haren emaitzak erdugarriak eta aintzat hartzekoak dira eta haren merituak zalantzarik gabekoak. Aspaldiko euskaltzain urgazlea izanik, harriduraz ikusi genuen askok haren hautagaitzak ez zuela aurrerapiderik izan euskaltzain oso izateko. Urte batzuk geroago, euskaltzain ohorezko izendatu genuen eta berak izendazio hori baino, nahiago izan zuen eta biziki eskertu ere, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak batera argitaratu eta Henrike Knörr zenaren eta Pilartxo Etxebarriaren zuzendaritzapean jaso zuen omenaldi liburua, Nerekin yaio nun, 2005. urtean. Falta zena Euskaltzaindiaren literatura batzordeak ondu zuen 2007. urtean, haren lehen nobela, Leturiaren egunkari ezkutua, aztergai hartu jardunaldi batean eta emaitzak kaleratu zituenean urte bereko Euskera agerkarian.

Joan zaigu Txillardegia. Etxekoei, bihotz-bihotzez, doluminak. Euskalgintzari, aldiz, itxaropena, garai latz hauetan, apartera joan gabe, gurean baititugu aurrera egiteko gidariak. Besteak beste, Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegia.

Le Trait

Par LUCUX



le journal

LE JOURNAL DU PAYS BASQUE -
EUSKAL HERRIKO KAZETAHEDAGUNE MEDIA CENTER, ZA Martintzaharenia 64122 URRUGNE-URRUÑA
Tel. 05.59.46.02.50 Fax: 05.59.46.02.59 lejourn@lejp.com

Edité par: Baigura Communication, SARL au capital de 13720 euros.

Gérant et directeur de la publication: Anton Etcheverry gestion@lejp.com

Rédacteur en chef: Giuliano Cavaterra gcavaterra@lejp.com

Pays Basque: Cyrielle Balerdi cbalerdi@lejp.com, Pierre Mailharin pmailharin@lejp.com,

Béatrice Molle bmolle@lejp.com, Goizeder Taberna gtaberna@lejp.com,

Cécile Vignau cvignau@lejp.com, Lætitia Bréard lbreard@lejp.com,

Carole Suhas csuhas@lejp.com

Culture: Carole Suhas, Cécile Vignau culture@lejp.com

Sports: Marc Dufreche sport@lejp.com

Photo: Bob Edme, Gaizka Iroz

Secrétaire de rédaction: Marie Arhex marhex@lejp.com

Maquettes: César Labarthe-Pon zierrea@lejp.com

Sébastien Soumagnas infographie@lejp.com

Publicité: Karine Orellana korellana@lejp.com 06-03-55-54-40

Imprimé à Bidasoa 20749 Arroa-Zestoa

N° Commission paritaire: 1111C80941

N° Dépôt légal: SS-790/03. ISSN 1630 67-40